



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Kirolaren Udal Erakundea

Zuzendari kudeatzaile lanpostu bati dagokion hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak.

Basauriko Kirolaren Udal Erakundeko lehendakariak 0249/2026 Ebazpena eman du 2026ko uztailaren 7an. Ebazpen horren Ebazpen-zatian honako hau xedatzen da:

Lehenengoa: Basauriko Kirolaren Udal Erakundea erakunde autonomoaren zuzendari kudeatzaile lanpostua hautatzeko deialdia onartzea.

Bigarrena: Zuzendari kudeatzailearen zuzendaritza-postua (COD 001) hautatzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak (Erantsitako dokumentua) onartzea.

Hirugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Basaurin, 2026ko uztailaren 7an.—Presidente, Jon Zugazagoitia Sagarduy

**OINARRI ESPEZIFIKOAK (2) – BASAURIKO KIROLAREN UDAL ERAKUNDE
AUTONOMOAREN ZUZENDARI PUBLIKO PROFESIONALA****1. Hautaketa-deialdiaren xedea**

1.1. Oinarri hauen xedea da zuzendari publiko profesionala hautatzeko prozesua arautzea, Basauriko Kirolaren Udal Erakundea erakunde autonomoaren zuzendari lanpostua betetzeko.

1.2. Prozesuaren ezaugarriak:

- Harreman-mota: Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 39.2 artikulua a) letran xedatutakoaren arabera, administrazio-izae-rako izendapen bidez beteko da lanpostua.
- Hautaketa: egokitasun-, merezimendu-, gaitasun-, publizitate- eta lehia-printzipioak bermatuko dituen prozedura publiko bidez egingo da. Izendapen hori izendapen askeko hautazko egintza izango da, eta arrazoituta egon beharko du.
- Titulazioa: gradua edo baliokidea.
- Ordainsaria: ikus fitxa (I. eranskina).
- Bateriaezintasunak: abenduaren 26ko 53/1984 Legearen bateraezintasun-araubi-dearen eta kargu publikoei aplika dakiekeen interes-gatazkei buruzko legeriaren mende egongo da.

Deialdi honek kontuan hartuko du emakumeen eta gizonen arteko tratatu-berdintasunaren printzipioa, enplegua lortzeko dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua erekin, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin bat etorritik.

1.3. Bete beharreko lanpostuaren ezaugarriak oinarri hauen I. eranskinean deskribatzen dira.

2. Izangaiek bete beharreko baldintzak

2.1. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

- a) Honako egoera hauetakoren bat gertatzea:
 - Europar Batasuneko herritarra edo haren ezkontidea izatea (betiere zuzenbidez bananduta edo bananduta ez badaude), edo haren ondorengo edo ezkontidearen ondorengo izatea (zuzenbidez bananduta ez badaude), eta hogeita bat urtetik beherakoa edo adin horretatik gorakoa izatea. Hori guztia, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartuta egotea, langileen zirkulazio askea aplikagarri denean.
- b) Dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- c) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- d) Diziplina-espediente bidez edozein herri-administrazioaren zerbitzutik edo administrazio horiei lotutako edo haien mendeko beste erakunde batzuen zerbitzutik bereizita ez egotea, eta epai judizial irmo bidez eginkizun publikoak betetzeko desgaituta ez egotea. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, enplegu publikora iristea galarazten duen desgaitasun edo horren baliokide den egoera batean ez egotea.
- e) Beharrezkoa izango da unibertsitate-gradua edo horren baliokidea izatea, eta administrazio publikoetako karrerako funtzionarioa edo lan-kontratuko langile



finkoa izatea, edo sektore pribatuko profesionala izatea, goi-mailako tituluduna eta, azken kasu horretan, bost urtetik gorako lanbide-jardunarekin. Bi kasuetan, gutxienez 2 urteko esperientzia profesionala izan beharko da administrazio publikoetan edo sektore pribatuan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 40.3 artikuluan adierazitako eremu eta/edo eginkizun hauetan erantzukizuna duten lanpostuetan:

- Zuzendaritza-funtzioak.
- Pertsonen kudeaketa.
- Baliabide ekonomikoen kudeaketa.

3. Izendatzeko prozedura

3.1. Hautagaia izendapen askeko prozeduraren bidez hautatuko da.

3.2. Hautaketa Batzordeak izangaien curriculum vitae eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko ditu, merezimendu-, gaitasun- eta egokitasun-irizpideak kontuan hartuta.

Prozesuaren garapena, aurkeztutako eskabideak eta merezimenduak baloratzeko irizpideak ikusita, elkarrizketa bat egingo diete puntuaziorik onenak lortu dituzten izangai; hain zuzen ere, gehienez ere bost puntu lortu dituztenei.

Balorazio-prozesua amaitu ondoren, aurkeztutako hautagaiaren aldeko txosten arrazoiak egingo da, eta Lehendakariari proposamena egingo zaio, izendapena egin dezan.

Deitutako lanpostua hutsik utzi ahal izango da izangaiak ez aurkezteagatik, lanposturako egokitasunagatik edo izangaien eskakizunak ez betetzeagatik.

4. Hautaketa-prozesua

Eskatutako gutxienerako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten hautagaiak hautaketa-prozesuan onartuak izango dira, zeina jarraian adierazitako balorazioen arabera garatuko baita.

Ezingo dira baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztutako merezimendu ez beste batzuk.

4.1. Merezimenduak baloratzea

Oinarri hauetako 2.1 puntuan adierazitako gutxienerako baldintzak egiaztatu ondoren, izangaien curriculum vitae baloratuko da hautaketa-prozesuan, honako hauen arabera:

4.1.1. Esperientzia. Gehienez, 20 puntu. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- a) Hautaketa-prozeduran parte hartzeko baldintza gisa eskatutakoa baino esperientzia handiagoa izatea (gutxienez, bi urteko esperientzia administrazio publikoetan edo bost urtekoa sektore pribatuan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 40.3 artikuluan adierazitako eremu eta/edo eginkizun hauetan erantzukizuna duten lanpostuetan: zuzendaritza-eginkizunak, pertsonen kudeaketa, baliabide ekonomikoen kudeaketa).

0,5 puntu hilabeteko, 15 puntuko mugarekin.

- b) Kirol-kudeaketarekin lotutako sektore publikoko sail, arlo edo erakundeetan (Kirol Saila edo Kirol Erakunde Autonomoak) edo arlo pribatuan (kirol-kudeaketako enpresak) izandako lan-esperientzia.

0,25 puntu, 25.000 biztanletik gorako udaletan administrari kategorian edo bitarteko karguan izandako lan-esperientziako hilabete bakoitzeko.

0,1 puntu, 25.000 biztanletik beherako udaletan administrari kategorian edo bitarteko karguan izandako lan-esperientziako hilabete bakoitzeko.

0,1 puntu, gainerako erakundeetan garatutako koordinatzaile edo tarte-ko kargu kategoriako lan-esperientzia hilabete bakoitzeko.



Gehienez, 5 puntu.

4.1 2. Prestakuntza. Gehienez, 5 puntu:

Oinarri hauetan eskatzen den karguaren eremuari eta eginkizunei buruzko prestakuntza osagarria, (kirol-erakundeen kudeaketa, enpresen edo ekonomia administrazioa, administrazio publikoa, giza baliabideak).

- Postuaren xedearekin zerikusia duten gaietako batean masterra izatea, urtebeteko (1) edo gehiagoko iraupena duena; edo Bolonia Plana ezarri aurreko unibertsitate-tituluetarako lizentzia baliokidea edukitzea, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) 3. mailari dagokiona. 5 puntu
- 20-50 orduko iraupena duen lanpostuaren xedearekin lotutako prestakuntza-ekintza: 0,2 puntu.
- 50 ordutik gorako iraupena duen lanpostuaren xedearekin lotutako prestakuntza-ekintza: 0,5 puntu.

4.2. *Jardueren memoriaren balorazioa: 10 puntu, gehienez*

Hautagaiek deskribapen-memoria aurkeztu beharko dute, idatziz, euskaraz eta/edo gaztelaniaz, lan-esperientzia zehar garatu dituzten eta lortu nahi duten zuzendaritza-lanpostuarekin berariaz lotuta dauden zuzendaritza-proiektu garrantzitsuenei buruz. Sektorean garatutako esperientzia eta lotutako proiektuen zuzendaritza-, koordinazio-eta administrazio-alderdiak zehaztu beharko dituzte.

Memoria paperean aurkeztuko da, eta, gehienez ere, 10 A4 orrialdeko luzera izango du, alde bakarrean, Arial 12 letra-motan, 1,5 lerroartearekin. Ez dira aintzat hartuko kopuru hori gainditzen duten orrialdeak.

1-10 puntu lortu ahalko dira.

Hautaketa Batzordeak gai horretan espezializatutako pertsonen laguntza izan dezake, eta memoria ahoz aurkezteko eskatu ahalko du.

4.3. *Elkarrizketa pertsonala. 20 puntu, gehienez*

Curriculum vitaean alegatutako edukietan eta lanbide-gaitasunetan sakonduko da, eta arreta berezia eskainiko zaio diziplina anitzeko taldeak antolatzeke eta taldean lan egiteko gaitasunari.

Era berean, Basauriko Kirolaren Udal Erakundeak indarrean duen kudeaketaren deskribapenari eta kudeaketa hori hobetzeko proiektuari buruzko aurkezpen bat azaldu beharko dute izangaiek (Udalaren Kirol Erakundeari buruzko informazioa: www.basaurikirolak.eus webgunean). Deskribapen-aurkezpen horren eskema-gida bat ere aurkeztuko dute, paperean, gehienez ere 4 orrialdekoa (A4), alde bakarretik, Arial 12 letra-motan, 1,5 lerroartearekin. Ez dira aintzat hartuko kopuru hori gainditzen duten orrialdeak.

Honako hauek baloratuko dira:

- Udal-administrazioaren eremua ezagutzea, eginkizunak behar bezala betetzeko, toki-erakundeetan edo toki-erakundeekin izandako esperientzia profesionalaren bidez.
- Kirol-sektorearen errealitatea eta arazoak, antolaketa eta tokiko elkarte-sarea ezagutzea.
- Gaitasun profesionalak, honako hauek balioetsiz:
 - Modu eraginkorrean komunikatzeko, taldeak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko gaitasuna.
 - Kudeaketa estrategikoko eta negozio-kudeaketako trebetasunak.
 - Lidergorako eta taldeak kudeatu eta bultzatzeko gaitasuna, eta ekimen-sena.

4.4. *Hautagaien arteko berdinketa gertatuz gero, elkarrizketa-fasean lortutako puntua-*

*ziorik onena kontuan hartuta ezarriko da lehentasun-ordena*

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 21.1 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, gaitasun-berdintasuna egonez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan, baldin eta kidego, eskala, maila eta kategoria horietan %40tik beherako ordezkaritza badute, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu (hala nola, enplegua lortzeko eta sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea).

Horretarako, hautagaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean.

5. Parte hartzeko eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

5.1. Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek deialdiaren eranskinean agertzen den onarpen-eskabidearen eredia bete beharko dute. Eredu hori udalaren web-orrian egongo da: www.basauri.eus

5.2. Eskabideak aurkezteko epea hamabost (15) egun baliodunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea egun baliogabe batean amaitzen bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da. Eskabideak, bestalde, erakunde autonomoko lehendakariari zuzenduko zaizkio.

5.3. Eskabidearekin batera, NANaren edo nazionalitatea egiaztatzen duen agiriaren, titulu akademikoaren, eta ezagutza espezifikoak, esperientzia profesionala eta merezimenduak jasotzen dituen curriculum vitae xehatuaren fotokopia aurkeztu beharko da.

Administrazio publiko bateko karrerako funtzionarioa edo lan-kontratuko langile-izae-ra egiaztatzeko, dagokion erakundeak emandako ziurtagiria edo egindako kontratuaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

Sektore pribatuko profesional izaera eta emandako zerbitzuak egiaztatzeko, lan-bizitzaren ziurtagiri ofiziala eta kotizazioei buruzko lan-kontratuen kopiak aurkeztu beharko dira, eta kategorია eta/edo betetako eginkizunak zehaztu beharko dira.

Nork bere kontura emandako zerbitzuen kasuan, aurkeztu ahalko dira Ekonomia Jardueretan eta Langile Autonomoen Araubide Berezian edo dagokion mutualitatean alta emanda egotea egiaztatzen duten agiriak, merkataritza-kontratua, sozietate-eskiturak, esperientziaren edukia egiaztatzen duten balio ofizialeko agiriak eta Gizarte Segurantzako kotizazioaren ziurtagiria.

Era berean, izangaien merezimenduak eta gaitasuna justifikatzeko, zuzenbidean baliotzkoa den edozein bitarteko onartuko da.

Eskaerarekin batera, jardueren memoria eta azalpen deskribatzailearen eskema aurkeztu beharko dira.

6. Hautaketa-Organoa

6.1. Hautaketa Batzordeak lehendakariak zehaztutako osaera izango du. Lanpostuan eskatzen den titulazio-maila bera duten pertsonak osatuko dute, eta adituak izango dira kirol kudeaketan. Eratu ondoren, eginkizunak hobeto betetzeko, aditu eta izen handiko profesionalen aholkularitza jaso ahal izango du Batzordeak.

6.2. Batzordeko kideek ezingo dute batzordeko kide izan Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean.

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kide teknikoaren erdia baino gehiago bertaratu gabe. Ezinbestekoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria bertan egotea.

7. Komunikazioak eta jakinarazpenak

Hautaketa-prozesuaren ondoriozko komunikazio eta jakinarazpen guztiak Basauriko Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

**8. Hautatutako pertsona izendatzea edo kontratatzea**

8.1. Erakundeko lehendakariak Ebazpena emango du izendatutako pertsona izendatzeko, gehienez ere hilabeteko (1) epean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Ebazpen hori ofizialki eta erakundearen web-orrian argitaratuko da.

8.2. Izendatutako pertsonak bost (5) egun balioduneko epea izango du, izendapenaren edo kontratatzeak onespenera ebazpena argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera, ondoren adierazten diren agiriak aurkezteko eta lan-kontratuaz jabetzeko edo kontratua formalizatzeko. Bertaratzea jasota geratuko da. Hona hemen aurkeztu beharrekoak:

- a) Eskatutako titulu akademikoaren fotokopia edo titulu hori eskatu izanaren fotokopia, eta titulua emateko eskubideen ordainketa, jatorrizkoarekin batera erkatzeko.
- b) Zinpeko adierazpena edo hitzematea, jasotzen duena interesduna ez dela diziplina-espediente bidez edo izaera bereko kaleratze bidez edozein herri-administrazioen zerbitzutik edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik banandua izan, eta ez daukala enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo bereziaren ebazpen judizial irmorik.
- c) Zinpeko adierazpena edo hitzematea, jasotzen duena izangaia ez dagoela aplikatzea dagokien legezko arauen arabera berariazko ezintasun-kausaren batean sartua, lanpostua jabetzan hartzean beste enplegu publikorik ez duela, eta bete beharreko lanpostuarekin bateraezina den jarduera pribaturik ez duela.
- e) Administrazio publikoetako funtzionarioa edo langile lan-kontratuduna dela edo eskatutako esperientzia duen sektore pribatuko profesionala dela egiaztatzen duen agiria.

9. Gorabeherak eta errekursoak

9.1. Hautaketa Batzordeak ahalmena izango du sortzen diren zalantza guztiak ebazteko eta hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartzeko.

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoenerako, legeria orokorrean eta berari dagozkion gainerako arauetan xedatutakoa aplikatuko da.

9.2. Oinarri hauek, horiek aplikatuz egiten diren deialdiek eta horietatik eratorritako administrazio-egintzek administrazio-bidea agortuko dute. Interesdunek aukerako berraztertze errekursoa aurkeztu ahalko diote erakunde autonomoko lehendakariari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ezarritakoaren arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri ahalko dute, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenean, aurreikusitako moduan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, epea zenbatzen hasiko da dagokion iragarkia edo ebazpena argitaratzen eta/edo jakinarazten denetik.

10. Kontratazioa, probaldia eta kargua uztea

Hautatutako pertsona izendatu edo kontratatuko da goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuarekin bat etorritik.

6 hilabeteko praktikaldia edo probaldia egongo da. Aldi horretan, hautagaia izendatu zuen agintariak pertsona kargutik kendu ahal izango du, probaldia/praktika-aldia gainditu ez duela uste badu.

Kargutik kentzea egintza diskrezionala izango da, baina arrazoitu egin beharko da.

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 40.11 artikuluan adierazitakoarekin bat, zuzendari profesional izendatzeak lanpostuan jarraitzea dakar, betiere egindako kudeaketaren ebaluazioaren emaitzak egokiak badira. Lanpostuan jarraitzeak esan nahi du zuzendari publiko profesionalak karguan jarraituko duela hurrengo udal-hauteskundeak egiten diren urteko abenduaren 31ra arte. Horiek egin ondoren, toki-erakundearen lehendakariak erabakiko du, nahi badu, zuzendaritza-eginkizunak



beste agintaldi batez luzatzea ala ez, gehienez ere, hurrengo udal-hauteskundeak egiten diren urteko abenduaren 31ra arte.

11. Aplikatu beharreko araudia

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, prozesua Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, Funtzio Publikoa Aldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean, eta aplikatzea dagokion beste guztietan ezarritakora egokituko da.



I. ERANSKINA

LANPOSTUAREN PROFILA**IMD/KUE Erakunde autonomoaren zuzendaritza-langilea**

Lanpostuaren kodea	Lanpostuaren izena	LT	Lan-harremana	Titulazioa	BM	Ordainsari arruntak, guztira	Lang. klasea	HE
COD 01	BASAUR KIROLAKEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA	A1	Langile lan-kontratuduna, goi-mailako zuzendaritza	Unibertsitate-gradua edo horren baliokidea	IA	28 taldekoak	Zuzendaritza	C1C1

LT: lanbide-taldea.

HM: hornitzeko modua.

IA: izendapen askea.

HE: hizkuntza-eskakizuna (Derrigortasun-data 2026ko urtarrilaren 8an).

Eginkizunak**1. Zuzendaritzari lotutakoak**

- Kontseiluaren erabakiak eta lehendakariaren agindu eta ebazpenak bete eta be-tearaztea.
- Zerbitzuak zuzendu eta ikuskatzea, eta langileen zuzendaritza bere gain har-tzea. Eginkizun honek berekin dakar plangintza estrategikoa eta operatiboa bul-tzatzea, politika eta kudeaketa lerrokatzeko.
- Erakunde Autonomoaren funts eta baloreak erabili eta zaintzea.
- Zentroaren ondasun higigarri eta higiezinak zaintzea, behar bezala kontserba-tzen direla zainduz.
- Kontseilu Errektoreari aurkeztu beharreko aurrekontu-proposamena prestatzea, ondoren Udalbatzari aurkezteko. Aurrekontu-betearazpena kudeatzea, aurre-kontua aldatzeko proposamenak barne.
- Erakunde Autonomoak behar bezala funtzionatzen duela bermatzea.
- Bere sinaduraren bitartez, betekizun hori baimentzen duten gutun eta agiriak baimentzea.
- Erakunde Autonomoak egindako jarduera guztien Urteko Memoria prestatzea.
- Goi-mailako txosten, estatistika eta proposamenak egitea.
- Aurrekontu Nagusiaren eta Kontu Nagusiaren likidazioa prestatzea; plan, au-rrekontu eta estrategien betetze-maila jarraitu eta aztertzea, debideratzeak eta errentagarritasuna aztertzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Zerbitzuan eta bere instalazioetan egitea komeni edo behar direla uste duen handitze-, aldatze- eta berritze-lanak aztertu eta proposatzea; eta zerbitzua ho-betzeko komeni edo behar diren era guztietako material eta tresnak zaindu, man-tendu edo ordezteko lanak aztertu eta proposatzea.
- Udalerriko kirol-politika definitzea, Kontseilu Errektoreak eman dituen eta Udalak udal babesa garatzean eman ditzakeen gidalerroei kalterik eragin gabe.
- Bere lantaldearen buru eta koordinatzaile izatea: taldea motibatu, orientatu eta prestatu egingo du, dagozkien erantzukizun eta helburuak euren gain hartzeko.
- Kanpoko harremana eduki klubekin eta beste erakunde publiko eta pribatuekin, babesletzarako.
- Administrazio elektronikoa, gardentasuna eta gobernu irekia bultzatzea, bai eta herritarren entzute aktiboa eta parte-hartzea ere, bere jardun-eremuan.
- Bere kudeaketari esleitutako gaietan kontuak emateko bermea.
- Etengabeko berrikuntza sustatzea, bere eremuan.



- q) Erakunde Autonomoko Kontseiluak beren-beregi ematen dizkion gainerako bete-kizunak, beraren edo lehendakariaren eskumenekoak badira, eta, betiere, bere eskumenen barruan badaude.
2. *Kontseilu Errektorearen idazkaritzari lotutakoak*
- a) Kontseilu Errektorearen batzarretara joatea. Ezinezkoa bazaio, lehendakariak, zuzendari gerentearen iritzia entzun ondoren, hura ordeztuko duen pertsona zehaztuko du.
 - b) Lehendakariak deialdi bakoitzeko gai-zerrenda prestatzeko behar dituen gaiak eta deialdia bera prestatzea, eta Kontseilu Errektoreko kide guztiei helaraztea, denbora eta modu egokian.
 - c) Batzarren aktak idaztea eta, onetsitakoan, dagokion akten liburuan hitzez hitz idazteko agintzea. Era berean, zuzendari gerentearena izango da liburu horiek zaintzeko ardura.
 - d) Estatutu honek eskatu edo lehendakariak agindutako era guztietako ziurtagiriak, erabakien jakinarazpenak eta agiriak ematea.
 - e) Kontseilu Errektoreak beharrezko aholkularitza juridikoa izango duela bermatzea eta aurreko ataletan adierazi ez diren fede publikoko gainerako funtzioak egitea.